



Esp. kodea: 2014SAPL0013

Gaia: PLENOA 2014/12/02
Hasiera eguna: 2014/11/26

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2014ko abenduaren 2a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko azaroaren 4a egindako bileraren akta onartu du.

2. HASIERA BATEAN ONARTZEA “GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN, BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ARAUDIA”

Udalbatzarrak aho batez, besteren artean, onartu zuen hasierako onespena ematea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari, Arrasateko Udaleko eskuduntza eta lurralde esparruan, eta espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

3.- M^a ISABEL ITURBE ABASOLO ETA ALAITZ PEREZ DE ARENAZAREKIN (ETXEZURI BASERRIA) HITZARMENA SINATZEA, A.E. 86.- ZALDUSPE ESPARRUKO BIRZATIKETA PROIEKTUAREN EFEKTUETARAKO.

Udalbatzarrak aho batez onartu zuen aipatutako hitzarmena.

4.- SAIOLANI BURUZ ARRASATEKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Arrasateko Udal Talde Sozialistak SAIOLAN eta BIC BERRILAN erakundeen fusioaren kontrako jarrera azaleratzeko aurkeztutako mozioa ez zen onartua izan, aldeko 4 boto, aurkako 10 eta 4 abstentziorekin.

5.- IBAI-ARTEK PROPOSATUTA, BILDU, ARALAR ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, TURISMO JOERA HANDIKO EREMUEEN INGURUAN.



Esp. kodea: 2014SAPL0013

Gaia: PLENOA 2014/12/02
Hasiera eguna: 2014/11/26

Ibai-Arte elkarteak turismo joera handiko eremuen inguruan, 20/2012 Errege-Dekretu-legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailearen 13ko) eta 8/2014 Errege-Dekretu-legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailearen 4koa) jasota dauden neurrien, eta 2014ko irailaren leko EBAZPENAREN, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, kontrako iritzia azalertzeko aurkeztutako mozio proposamena, onartua izan da, aldeko 14 boto eta kontrako 4 botorekin.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 2a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta